


FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresa bat ondo funtzionatzeko oinarrizkoa eta ezinbestekoa den elementu bat bezeroak eta hornitzaileak izango litzateke. Nahiz eta gure enpresa



hornitzaile zehatz bat ez euki, kontuan hartuko ditugu argazkiak igotzen dituzten pertsonak hornitzaile bezala. Hasieran haiek izango direlako gure enpresa aurrera eramango dutenak eta enpresa are gehiago irekitzen lagunduko digutenak, era guztietako jendearentzat. Hau da, haien erabakia izango delako gure zerbitzua erabiltzea edo ez.

Gure enpresa ondo kudeatuta egoteko, arau multzo batzuk izan behar ditu edo zenbait muga barneratu. Lehenik eta behin, gure enpresaren ideiak patentatu beharko ditugu, hau egiten da beste enpresa-talde bat gure proposamenak haien esku ez hartzeko eta ez plagiatzeko.

• **Hornitzaileak:**

Gure jarduera dela eta ez daukagu hornitzaile fisikorik. Aplikazio bat izanik, ezinezkoa da hornitzaile fisikoak izatea; hala nola, ezin izango ditugu garbiketa zerbitzurik kontratatu.

Bestalde, aipatu beharra dago gure plataformaren diseinua mantendu ahal izateko, gure enpresako langile batek horretan jardungo du. Hala ere, langile bat denez ez litzateke hornitzaile bezala kontuan hartuko.

• **Bezeroak:**

Aurretik aipatu dugun bezala gure bezeroa aplikazioa erabiliko duen pertsona oro izango litzateke. Egia da hasiera batean hornitzaile bezala kontuan hartuko ditugula azken finean gure enpresa aurrera eramango dutenak izango direlako. Bestalde, enpresaren egoera ona dela behin ziurtatua erabiltzaileak bezero izatera pasatuko dira, gure zerbitzuak eskuratuko baitituzte.

